



## FUNTZIONAMENDU ARAUAK Unitate funtzionala – DIGESTIBOA

**Dei egiteko beharrea bazaude, erabili gelako txirrria**

### GUREAN ZAUDEN BITARTEAN JARRAITU BEHARREKO ARAU OROKORRAK

- Zure garbitasunerako, dutxadun bainugela bat duzu logelan.
- Gure laguntza behar baduzu, jo txirrria. Horrela, gure lana erraztuko duzu; izan ere, erizaintzako kontrol gelara etorri gero, gure lana oztopa dezakezu.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeko unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurduak edo lur gabeak.

### MEDIKUAREN IKUSTALDIA / SENIDEEI INFORMAZIOA



- Egunero, igandean eta jaiegunetan izan ezik, 10:30etik 12:30era gutxi garabehera.
- Bisitan zehar, medikuak zure egoeraren berri emango dizu.
- Bisitaren hasieran megafoniaz abisua emango dizuegu lagun guztiak irteteko eta 12:30ak arte ezin izango da unitatera sartu.
- Astelehenetik ostiralera 12:30ak aldera senideoi informazioa emango dizuegu unitatearen sarreran dauden medikuen bulegoetan. Deituko dizugu.

### OTORDUAK



9:15ean Gosaria  
13:15ean Bazkaria  
17:15ean Merienda  
20:15ean Afaria

### BISITAK

- 14:00etatik 21:00etara.
- **Pazienteko 2 pertsona, gehienez.**  
**Nahi izanez gero, senide bat zurekin 24 orduz egon daiteke**

### BESTE GAUZA JAKINGARRI BATZUK



Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



Ospitalean sartu izanaren **egiaztagiria** behe solairuko harreran emango dizute (datu gehiago behar baduzu, jar zaitez harremanetan pazientearen ardura duen medikuarekin).



#### **TXAGORRITXU OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007000**

8:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituz: 945000882.

**Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere deitu dezakezu.**



**Telebista-zerbitzua** ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungintze-datarik, hortaz berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo behar izanez gero, deitu 1422 edo 636 46 59 37 telefonora.

Telebista - eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke-e.



#### **KAFETEGIA** **Ordutegia: 8:00etatik 22:00etara.**

Kafetegia erdisotoan dago.

Solairu batzuetan kafe eta freskagarri makinak daude, igogailuak dauden hallean.



**ALTA hartzeko egunean**, gela arratseko 15:00ak baino lehen utzi beharko duzu.

Ospitalean ISILTASUNA beharrezkoa dela gogorazten da.

#### **Laguntza erlijiosa eta espiritual:**

- Ospitaleak zerbitzu erlijioso katolikoa du Kapean (1. solairuan). Harrera erlijiosoaren ordutegia: egunero 8:30etik 20:30era. Mezen ordutegia: Igande eta jaiegunetan 11:00etan.
- Beste erlijio batzuetako pazienteek eta senideek laguntza eskatu diezaioke euren arimako maisuari.

